

# Eskolaz kanpoko jarduerak 2019-2020



Guraso agurgarriok:

Honen bitartez 2019-20 ikasterterako ikastetxean aurreikusita ditugun eskolaz kanpoko jardueren eskaintza jakinarazi nahi dizuegu.

### Izar Leku kluba: Gimnasia erritmikoa (Haur Hezkuntzako 4-5 urte)

Gimnasia erritmikoa musika-koordinazioa eta erritmoa dotoretasunarekin eta tapizaren gaineko trebetasunarekin konbinatzen ditu. Jendaurrean egindako ariketen aurkezpenak arrakasta du entrenamendu-ordu askoren ondoren. Baina kirol honengatiko pasioak sakrifizio guztiek gutxi irudi dezatela lortzen du.



### Aloha-Kitsune (de 3 a 5 urte de EI)

**KITSUNE:** Haur Hezkuntzako ikasleei zuzendutako estimulazio goiztiarraren inguruko programa da. Metodologiari dagokionez, hiru dimentsio hauek lantzen ditu:

1. **Manipulazio-matematikak:** Kitsune proiektuan oinarriko ardatzak hartzen dugu matematika-kontzeptua, haurren adimen-garapenean funtsezkoa dena. Horrenbestez, manipulazioaren bitartez egindako adimen logiko-matematikoaren garapena programaren zutabeetako bat bihurtu da ([bideoa](#)).
2. **Adimen emozionala:** Saiotetan Kitsuneko ikasleek haien emozioen identifikazioa eta ezagutza lantzen dituzte, xede horretarako, garrantzi handiko zenbait gaitasun garatzen dituzte, hala nola, bulkaden kontrola, autokontzientzia, motibazioa, pertseberantzia, enpatia... ([bideoa](#)).
3. **Psikomotrizitatea:** Bere gorputzaren bitartez, haurrak ingurunea ezagutzen du, harremanetan hasten da, ikasten du eta gizarteratzen da. Premisa horretatik abiatuta, Kitsune programak garapen sensoriomotor, afektibo, kognitibo eta soziala bultzatzeaz gain, idatzi eta irakurtzeko oinarriak finkatzen ditu.



**Web:** <https://www.kitsune3d.com/eu/home/>

**Bideoa:** <https://www.youtube.com/watch?v=WGwgs4vDqA4>

### Lacunza: Ingelesa (Haur Hezkuntzako 4-5 urte)

Mundaiz eta Lacunza akademia ados jarri dira eskolaz kanpoko ingeleseko klaseak antolatzeko eta kudeatzeko. Kalitatezko irakaskuntza irakasle natiboekin eskaintzen da, ezagueraren hobekuntza esanguratsua izateko eta trebetasun linguistikoak bermatzeko asmoz.

Informazio gehiagorako begira ezazue bi esteka hauetan:

<http://www.mundaiz.com/assets/2019.05.08-lacunza-informazioa.pdf>

# Lacunza

### Haurrak beti jolasean (Haur Hezkuntzako 4-5 urte)

Haurrek ordubete pasatzen dute hezitzailearekin jokoak, abestiak, antzerkiak, eskulanak eta jarduera ludikoak egiten euskaraz, giro lasaian. Hezitzaileak saiatuko dira hurrek ahalik eta gehien komunikatu eta hitz egin dezaten, ondo pasatuz eta euskaraz soilik hitz eginez.

#### Helburuak:

- Euskara hurren arteko hizkuntza naturala izateko urratsak ematea. Euskara eskola eta gelako hizkuntza soilik ez izatea.
- Euskarak lagun artean, eskolatik kanpo, egoera informalago batean, jolasteko, lagunekin hitz egiteko, ondo pasatzeko, tarteka haserretzeko ere balio duela praktikan erakustea.
- Helburua ez da euskara ikastea, baina hizkuntza zenbat eta gehiago erabili orduan eta hitz jario hobea izango dute hurrek, haien artean euskaraz hitz egitea naturalagoa egingo zaie, eta euskara maila ere hobetuko dute.



### Patinajea (Haur Hezkuntzako 5 urte)

Patinaje-eskola hockeyko harrobi nagusia da Mundaizen. Gainera, mugimenduen eta ariketen bidez oreka garatzen eta gorputzaren harmonia mantentzen duen jarduera da.



## Tximeleta (Haur Hezkuntzako 4-5 urte)

Hiruhileko bakoitzean gai hauetako bat landuko da:

### Adimen anitzak:

**Helburua:** Ikasle bakoitzaren garapen osoa bultzatzen laguntzea, indarguneak eta ahulguneak ezagutzen laguntzea eta haur bakoitzaren bakantasuna errespetatzea, gaitasun eta abilezia ezberdinak daude eta mundua ulertzeko bide anitzak ere.

### Edukiak:

- Adimen musikala
- Adimen linguistikoa
- Adimen logiko-matematikoa
- Gorputz-adimena
- Adimen bisual-espaziala
- Adimen intrapertsonala
- Adimen interpertsonala
- Adimen naturalista



### Ipuin interaktiboak:



**Helburua:** Tximeletan ipuinak interpretatuz eta horiekin jolastuz gozatzen dugu. Gure helburua haurrak adin goiztiarren literatura mundura hurbiltzea da.

### Edukiak:

- Ipuineko pertsonaiak ezagutu eta jolastu
- Ipuinak eraldatu eta finala desberdinak eman.
- Letra eta hitzak jolas moduan erabiltzea

### Sormen tailerra:

**Helburua:** Haurren garapenerako, sormena erabiliz eta ideiak adieraziz ekintza artistikoetan parte hartzeko espazio bat eskaintzea da helburua.

### Edukiak:

- Umearen komunikazio librea eta irudimenezko kanalak irekitzea bere ingurunearekiko
- Gorputz adierazpena
- Adierazpen artistikoa
- Eskulanak



Izena emateko klikatu [esteka](#) honetan.

**Web:** [www.tximeleta.eus](http://www.tximeleta.eus)

**Telefona:** 943 11 63 42


**E-mail:** [info@tximeleta.eus](mailto:info@tximeleta.eus)



## Myrobotfun: Teknologia eta programazioa (4 y 5 años de EI)

Hezkuntza-Teknologia eta programazioa eskolaz kanpoko jarduera ikasleentzat motibazio iturri perfektua da. Dibertitzeaz gain informatika, teknologia, matematikak eta beste hainbat gaien ikaskuntza erraztu eta gainera neska-mutilen etorkizuneko konpetentziak eta zenbait gaitasun garatzen laguntzen die.

Informazio gehiagorako: [myrobotfun.com](http://myrobotfun.com)



## EBALUAZIO SISTEMA

Eskolaz kanpoko jardueren ebaluazioa egingo da. Hiruhilekoaren bukaeran irakasleak ikaslearen txosten pertsonala osatuko du eta gurasoei bidaliko die.

## HORARIO Y DURACIÓN DE LA ACTIVIDAD

Jarduera bakoitzaren ordutegiak esteka honetan topatuko dituzue: ordutegiak ([eranskina](#) ikusi).

Jarraian jarduera bakoitzaren hasiera eguna duzue:

- **Ingelesa (Lacunza)** irailaren 9ren astean hasiko da.
- **Gimnasia erritmikoa eta patinajea** irailaren 16ren astean hasiko da.
- **Aloha-kitsune (3 urte salbu) eta Tximileta** urriaren 1en astean hasiko dira.
- **Haurrak beti jolasean** urriaren 14an.
- **Aloha-kitsune 3 urte** urtarrilaren 6aren astean hasiko dira.

## IZEN-EMATEA, PREZIOAK ETA ORDAINTZEKO MODUA

Esteka honetara zuzendu jarduera bakoitzaren prezioak topatzeko: prezioak ([eranskina](#)).

Beste esteka honetan izen-ematea egin daiteke: [izen-ematea](#).

Izen-emate epea ekainaren 10etik 21era bitarte berriro irekiko dugu.

Oro har, ikasturtearen prezio osoa 8 kuotatan banatuko da (urritik ekainera bitarte). Kuota banketxez pasatzen den ikastetxeko hilerokoari erantsiko zaio.

Jarduera batzuk berezko ordaintzeko modua dute (ikusi prezioen orria [eranskinean](#)).

## ARDURADUNAK ETA IRAKASLEAK

**Koordinatzailea:** ..... Patricia Tejero ([ekj@gmundaiz.com](mailto:ekj@gmundaiz.com))  
**Lacunza:** ..... Ainize Oroz ([ainize.oroz@lacunza.es](mailto:ainize.oroz@lacunza.es))  
**Aloha-Kitsune:** ..... Alai Proiektuak ([info@alaiproiektuak.eus](mailto:info@alaiproiektuak.eus))  
**Patinajea:** ..... Daniel Alonso ([dani@gmundaiz.com](mailto:dani@gmundaiz.com))  
**Izar Leku kluba:** ..... Itziar Beluche ([itziarbeluche.ritmica@gmail.com](mailto:itziarbeluche.ritmica@gmail.com))  
**Haurrak beti jolasean:** ..... Agurtzane Altuna ([agurtzane@kiriketan.com](mailto:agurtzane@kiriketan.com))  
**Tximeleta:** ..... Leticia Vicente ([leticiavicente@tximeleta.eus](mailto:leticiavicente@tximeleta.eus))  
**Myrobotfun:** ..... Rafael del Amo ([myrobotfun@myrobotfun.com](mailto:myrobotfun@myrobotfun.com))

## ARAUDIA

- Taldeek **ikasle-kopuru mugatua** izango dute eta izen-ematearen orriaren arabera osatuko dira. Bajak **itxarote-zerrendaren ordenaren arabera** osatuko dira.
- Izena eman duten ikasle kopurua taldea osatzeko nahikoa ez bada, jarduera ez da martxan jarriko eta gurasoei jakinaraziko zaie.
- Ikasleek ezin izango dute izena eman asteroko bi orduko den eta ordutegi-interferentziagatik edo beste zirkunstantzia bategatik egun batean soilik joan daitekeen jardueran.
- Edozein jardueratarako izen-emateak **gutxieneko konpromisoa** ekartzen du: **4 kuota**. Behin jarduera hasita, ez da bajarik onartuko ezta kuotarekin proportzionala den zatia itzuliko, salbuespenezko egoerak izan ezik.
- **Asistentzia eta puntualtasuna.** Asistentzia nahitaezkoa da. Hutsegiteak eta puntualtasun faltak errepikatuz gero, gurasoei jakinaraziko zaizkie eta berriro gertatuz gero, jardueran baja arrazioa izan ahal izango dira.
- Ikasle guztiak **ikaskela garbiak mantentzen, klase-altzariak zaintzen eta bere ikaslagunen eskola-materiala errespetatzen** saiatuko dira. Arratsaldean ikasleak bere klaseetara itzuliko direnean kexak eta ustekabekoak saihestuko dira.

Agur bero bat.

Patricia Tejero Peralo



Donostia-San Sebastián, 2019ko ekainaren 10a

## ERANSKINA: ORDUTEGIAK ETA SALNEURRIAK

| ESKOLAZ KANKOPO JARDUERAK                             |           |                         |                |                |                |                |                |
|---|-----------|-------------------------|----------------|----------------|----------------|----------------|----------------|
| HAUR HEZKUNTZA  |           |                         |                |                |                |                |                |
| JARDUERA  | IKASMAILA | KUOTA                   | ASTEL.         | ASTEAR.        | ASTEAZ.        | OSTE.          | OSTIR.         |
| Lacunza (ingelesa) <sup>3,6</sup>                     | 4 urte    | <a href="#">Pdf</a>     |                | 13:40<br>14:25 |                |                |                |
| Lacunza (ingelesa) <sup>3,6</sup>                     | 5 urte    | <a href="#">Pdf</a>     |                |                |                | 13:40<br>14:25 |                |
| Aloha-Kitsune <sup>4,8</sup>                          | 3 urte    | 27 €/hila<br>(5 hilak)  |                |                |                | 13:20<br>14:20 |                |
| Aloha-Kitsune <sup>2,4,7</sup>                        | 4 urte    | 27 €/hila               |                |                | 13:20<br>14:20 |                |                |
| Aloha-Kitsune <sup>2,4,7</sup>                        | 5 urte    | 27 €/hila               | 13:20<br>14:20 |                |                |                |                |
| Tximeleta <sup>1,2,7</sup>                            | 4 urte    | <a href="#">Pdf</a>     |                |                |                |                | 13:20<br>14:20 |
| Tximeleta <sup>1,2,7</sup>                            | 5 urte    | <a href="#">Pdf</a>     |                |                |                | 13:20<br>14:20 |                |
| Izar Leku kluba Gimnasia erritmikoa <sup>2,5</sup>    | 4 urte    | 17 €/hila               |                |                |                | 13:35<br>14:25 |                |
| Izar Leku kluba Gimnasia erritmikoa <sup>2,5</sup>    | 5 urte    | 17 €/hila               |                | 13:35<br>14:25 |                |                |                |
| Patinajea <sup>2,5</sup>                              | 5 urte    | 14 €/hila               |                |                |                |                | 13:15<br>14:15 |
| Haurrak beti jolasean <sup>9,10</sup>                 | 4 urte    | B Modulua <sup>10</sup> | 13:30<br>14:25 |                | 13:30<br>14:25 |                | 13:30<br>14:25 |
| Haurrak beti jolasean <sup>9,10</sup>                 | 5 urte    | B modulua <sup>10</sup> | 13:30<br>14:25 |                | 13:30<br>14:25 |                | 13:30<br>14:25 |
| Myrobotfun Tecnología y programación <sup>1,2,7</sup> | 4 urte    | 30 €/hila               | 13:30<br>14:25 |                |                |                |                |
| Myrobotfun Tecnología y programación <sup>1,2,7</sup> | 5 urte    | 30 €/hila               |                |                | 13:30<br>14:25 |                |                |

<sup>1</sup> Jarduera berriak 2019-20.

<sup>2</sup> Jarduera honetako ordainketa 8 hilabetetan egingo da, urritik maiatzera.

<sup>3</sup> Informazio gehiagorako: <https://www.mundaiz.com/assets/2019.05.08-lacunza-informazioa.pdf>.

<sup>4</sup> Aurreko ikasturtetan Aloha-Kitsune egin ez dituzten ikasleek 24,50 € ordaindu egin beharko dute lehenengo bi urtetan material-kontzeptuan.

<sup>5</sup> Jardueraren hasiera: irailak 17aren astean.

<sup>6</sup> Jardueraren hasiera: irailak 10ren astean.

<sup>7</sup> Jardueraren hasiera: urriak 1en astean.

<sup>8</sup> Jardueraren hasiera: urtarrilak 7aren astean.

<sup>9</sup> Jardueraren hasiera: urriak 14aren astean.

<sup>10</sup> Haurrak beti jolasean (B modulua): arrunta, 195,07 €/urtea; familia ugaria edo guraso bakarrekoa, 146,30 €/urtean; familia ugari berezia, 97,53 €/urtean; gizarte laguntzadun familia, 19,50 €/urtean. Bi kuotatan ordainduko da: urrian eta abenduan.